

- **Merkatuaren segmentazioa:**

Esan bezala, dutxa hau nagusiki mugimendu-eragozpenak dituzten pertsona horiei egongo da bideratuta. Kasu, adin batetik aurrera bainuontzi edo dutxan bakarrik jarduteko arazoak dituztenei, bakarrik bizi diren agurei, edo eta edozein adinetako aulki-erroberadun edo beste edozein ezgaitasun duen edozeinentzat egongo da zuzenduta. Hala eta guztiz ere, esan beharra dago dutxa honek eskainiko duen erosotasun, laguntza eta berezitasunak edozeinen eskura egongo direla, edozeinek nahiko baitu izugarri dutxa moderno, ziur eta berezian dutxatzea.

Bezero segmentuari dagokionez, nahiz eta edozeinen eskura egongo den produktua izan, segmentazioa egiterakoan, benetan hauen beharra asetuko dugunengana zuzenduko gara bereziki. Hori dela eta, komunikazioari dagokionez, prestatuko dugun publizitate, propaganda... egiterakoan, beharra duten horiei zuzenduko gara, beraien arazoak zuzendu edo hauek asetzen lagunduko diegula ziurtatuz. Hala eta guztiz ere, sare-sozialetan jarriko ditugun iragarkietan, modu orokorragoan aurkeztuko dugu gure proiektua, salmentak igotzeko helburuarekin. Beraz, telebistako iragarki eta enpresaren komunikazio jarduera nagusietan, segmentazioa bereizitua izango da, arazo ezberdinei modu ezberdinetan zuzenduko baitgara. Sare sozialetan berriz orokorragoa izango da, hau da, segmentazio ez berezitua.